

«Literatura ez den literatura egin nahi dut»

Hogei urteko ibilbideak ez dira kasualitatez egiten.

SUSTRAI COLINA

Argazkiak: Dani Blanco

Azken urteotan literaturaren ohiko bideekin nazkatu samar agertu zara. Etorri dira urak euren onera?

Nazkatua baino gehiago, gogaitua da hitza. Editoreek idazleak zirikatu behar dituzte eta nik ez nuen inongo probokaziorik sentitzen, ez nuen sintoniarik topatzen editore jendearekin. Lehenaz gain, are neure baitarago itzuli nintzen, bakarrik, nire kezka eta obsesioekin, bidaiderik gabe. Garbi ikusi nuen eguneroko eta urteroko Durangoko zurrunbiloanitsu-itsusartuta zeudela, baina ez daudela epe luzera pentsatzera ohituta. Ez daude proiektu desberdinak kaleratzeko prest, oso gutxi dira arriskatzeko gertu daudenak. Nik ez dut betiko liburua betiko bilduman atera nahi. Ez dut, oso ona izan arren, jendeak ahanzturaren apalean gordeko duen beste istorio bat kontatu nahi. Orduko kezkak areagotu baizik ez zaizkit egin, baina ikasi dut horiekin bizitzen, eta lasai nago. Argitaletxeekiko sintonia handiegirik gabe jarraitzen dudan arren, argi daukat idazleak bertan goxo eginda gaudela, eta beste nobela bat egiten dugula, edo beste ipuin liburu bat, proposamen berritzaileak gabe. Maila teorikoa, Anjel Lertxundik, Harkaitz Canok edo Manu Lopez Gasenik oso planteamendu interesgarriak egin dituzte, baina praktikara eramateko orduan herren gabiltza denok ere. Badakigu bihar-etziko literatura zatikatua izango dela, genero desberdinez osatutako miszelanea bat, baina ez dugu asmatzen, ez dakigu kezka horiek bideratzen. Ez da hemengo kontua bakarrik, alta. Oraindik idazle eta editore asko XX. mendean bizi dira.

Hortik dator zure azken lanetan liburuaz gaintzako ezer eskaintzeko grina?

Hori da nire obsesioa, nire oinarri teorikoa, baina orain idazten ari naizenak berritzailea izan nahiko lukeen arren, betiko liburua izateko aukera handiak dauzka. Betiko liburua idazterakoan ordea, egin litezke proba

berriak. Esaterako, Jaime Rosales zinegileak pantaila bitan banatzen du istorioa aldi berean bi ikuspegitatik kontatu ahal izateko. Zergatik ez egin gauza bera liburuekin aldiro bi orrialde baldin baditugu? Zergatik jarraitu behar dugu ordena kronologiko bat? Zergatik ez dugu idazten, Mallarmeren gisan, bi orrialdeak bakartzat hartuz? Orain gogoan dudan liburuan, zati bati bukaeratik ekin nahi nioke, hastapenetik abiatu denarekin liburua- ren erdialdean topo egin dezan. Saiakera horiek oro ez dira derrigorrezkoak, baina irakurlearekiko begirunez bakarrik, apustu berriak egin behar ditugula sinetsita nago.

Aukera berritzaile horiek aldatzen dute zure sortzeko modua?

Jakina. *Jeans-ak Hozkailuan* nobela idatzi nuen nahita aukeratu nuen idazten ez zekien neska idazkari bat protagonistatzat. Gogaitua nago protagonista artistekin, idazleak diren protagonistekin, konbentzituta bainago idazleok gure baitara bihurtzen garela munduko gertakariei behar bezala zabaldu gabe. Hautu horrek asko mugatzen ninduen ni, ezin nituen errekurso literario asko garatu, idazkera telegrafiko eta motzera kondentatzen ninduen. Protagonistak etengabe errepikatzen zuen “ez dakit nola esan”, eta gainera, idatzitakoa ezabatu egiten zuen. Jende batek liburua akatsez beteta zegoela esan zidan, baina ez, neskak bere buruari zentsuratzen zizkionak agertzen ziren ezabatuta, eta irakurleak horren berri bazuenez, jolas bat sortzen zen. Protagonista jakin bat, ikuspuntu zehatz bat, idazkera kon-

Nortasun agiria

1964ko urtarrilaren 25ean jaio zen Gasteizen bizi den ordiziar hau. Euskal Herriko Unibertsitatean euskal filologian lizentziatua, itzultzaile eta idazle oparoa da. Bere lan ezagunen artean daude helduentzat idatzitako *Jeans-ak Hozkailuan*, *Barrikadak* edo *Mundua lo dagoen bitartean*, eta haur eta gazteentzako, *Eztia eta ospina*, *Pikolo* edo *Pantaleon badoa*. Azken horregatik jaso zuen Euskadi Saria 2006an.

A portrait of Patxi Zubizarreta, a man with short grey hair and a slight beard, wearing a dark denim jacket over a dark shirt. He is standing in front of a large mural of a woman's face in profile. The text 'Patxi Zubizarreta' is overlaid in white, with '• PERTSONAIA •' below it.

Patxi
Zubizarreta
• PERTSONAIA •



Altxa burua

“Gizartea epe motzera begira itsutzen da, baina literaturan ari garenok, burua altxa, eta perspektiba luze eta zabalago batekin jardun behar dugu. Ez dugu Durangora joan behar Durangora joan behar delako. Planteamendua beste bat da”.

Ez dakit artistikoki proposamen interesgarrienak haur literaturan ez ote dauden. Argitaletxe txiki, eskisito zenbait proposamen oso ausart eta interesgarriak egiten ari dira. Zentzu horretan, oso tristetia iruditzen zait helduen literatura. Baina haur eta gazte literaturak beti du gutxiespen ukitu bat, merezitakoa neurri batean, oraindik ere badaudelako haurra irakurle heldugabetzat hartu eta istorioak lehengo Walt Disneyren erara planteatzuten dituzten idazleak. Heldu askok, ordea, haurrak izan eta seme-alabeekin berriz alfabetatzen hasten direnean eskapatu zaien mundu bat deskubritzen dute haur eta gazte literaturan. Oso klasiko ederrak dauzkagu, zoragarriak, eta egun ere,

kretu bat, hautatzeak nahitaez aldatzen du sortzeko modua. *Eztia eta ospina* liburuan esaterako, oso hizkera jasoa darabil protagonistak, jasoezia adin horretako gazte batentzako. Beti onartu behar zaizkio literaturari fikzioa eta gezurra, baina nik gezurraren bitartez egia eta egiantzekotasuna eman nahi ditut, eta jabetzen naiz kasu horretan, idazle hasiberri baten luzitzeko gogo baizik ez dagoela. Zinemagile bati entzun nion behin, zinema ez zen zinema egin nahi zuela, eta horixe da, nik literatura ez den literatura egin nahi dut. Horregatik atera ditut azken liburuak apurtuak, zikinak, zirrimarrekin, argazkiekin...

Kasualitatea da haur eta gazte literaturari oso emana dagoen idazle batengandik etortzea ahalegin horiek?

oso literatura ona idazten ari da. Ni zorionez hasi nintzen haurrentzat idazten, eta eskerak, haurrentzako idazteak ekonomikoki bizitza salbatu dit-eta. Eskoletara joaten naiz, nire liburuak itzultzen dira, eta horrek beste ezertan ausartzeko oinarri bat ematen dit. Gutxiespen horri ez diot beldurrik, ez naizelako haur-literaturara mugatzen. Esparru desberdinak jorratzen dituzten idazleak askoz sinesgarriagoak zaizkit.

Ez al duzu sarri haurrak tontotzat hartzen diren irudipena?

Bai, baina baita helduak ere. Batere iradokitzten ez duen literaturak, den-dena kontatzen duenak, irakurleak konkistatzeko bukaera on eta ponpoxoak borobiltzen dituenak, irakurlea tontotzat hartzen du, haurra ala heldua

izan. Haurrentzat idaztea ez da batere samurra. Nola idatzi sinesgarriki lehen pertsonan, hamabi urteko neskatila baten larrutik? Uneotan gazte literatura da gehien kostako litzaidakeena, hizkera, bizipen eta kezka aldetik oso urruti nagoelako eurengandik. Sarri pentsatu dut zahar gehiegi ari garela gazte literatura idazten. Literatura zure kezka eta etsipenekin bat egiten duen bide-laguna da, ez erraz salduko den ondo idatzitako liburu bat.

Horregatik eskaintzen zaizkie haurrei gai mugatuko liburu politikoki zuzenak?

Oso gai gogorak lantzen dituzten liburu bikainak daude haur-literaturan, baina interesik ez duen irakasleak nekez izango du euren berri. Gurasoen babeskeria ere geroz eta handiagoa da, eta irakasle asko ez dira ausartzen gidoitik irtetera, ez dutelako kexurik nahi, ez dutelako arazorik gura. Sinetsita nago literaturak alderdi etiko batzuk lantzeko balio dezakeela, ez baitezpada jarraitu beharreko ikuspegiak, idazleak ere askatasun osoa duelako bere jarrera eta pentsaerarekin bat egiten ez duten pertsonaia eraiki eta erabiltzeko. Sarri pentsatzen dut oinarritzakoa den fantasia eta irudimenezko ahots hori ito egiten dugula eskolan. Oso gai delikatu eta konplikatu da. Zappingaren haurrak dira gureak, eta errealitatea elkarrekin lotuta ez dauden flashen bidez jasotzen dute, ezer ulertu gabe aurrera egiten ohitzeraino.

Eta zuk, hori dena jakinda, *Pikolo* argitaratzen duzu...

Eskolaz eskolako ibilbidean egokitu izan zait pikoloak ezagutzea. Nire haurtzaroan ere, kuartela jaiotetxetik gertu zegoelako, ikusi ditugu atentatuak, manifestazioak, barrikadak, eta zoritxarrez, herri honen kalterako, errealitate hori gehiegi luzatu da. Azken su-etenean, halakorik ez nuela idatzi beharko pentsatu nuen, baina tregua eten zen, eta Legutioko atentatua gertatu zen. Sarri-sarri

Erdibidean

“Orain jendeak Gasteizen ikusten nau, baina ni Lisboan nago, idazten ari naizena Lisboan hasten delako. Gasteiz inkontzienteki datorren zerbait da. Horregatik, ez naiz dena hasieratik aurreikusizalea, ezta dena inprobisatzen duten horietakoa ere. Erdibidean nago”.

pasatzen naiz Legutiotik, haurrekin batzuetan, eta jakina, haurrek galdetu egiten dute. Nire inguruko haur batzuk *terroristetara* jostatzen dira, *ETA-koetara* beste batzuk, eta hori ikustean heldu zenbait eskandalizatzen diren arren, halaxe da, hori da haurrek jasotzen dutena. Shin Chan bukatzean hasten da Teleberria eta atentatu baten berri edo Palestina-ko haur bat tanke bati besarkatuta ikusten dute. Ez dute ulertzen, ohitu dira ez ulertze-
ra, baina galdetu egiten dute. Carmen Martin Gaitek zioen “erantzunik ez daukazunean, kontatu ipuin bat”, eta hori izan zen nire beharra, behar fisikoa. Nik askoz hurbilago bizi dut presoen errealitatea, baina iruditzen zait, alde horrek jaso duela bestelako babes bat, babes literario bat. Horregatik, distantziakidetasunik gorde gabe, istorio bat kontatu nahi izan dut, bakoitzak atera ditzan bere ondorioak.

Idazle askok *Utikan Euskadi Sariak* manifestua sinatuz atera zituen bere ondorioak. Zuk urte polemiko hartan irabazi zenuen saria.

Zorionez ez ninduen gehiegi zipriztindu. Ordurako ito samar nengoen idazleen mundu endogamikoaz. Aingeru Epaltzak zioen gisan, onberegiak gara euskal kulturari, publikoki ez dago kritika gogorrik, inork ez du inor larrutzen. Sariak poz handia eman zidan maila pertsonalean, maila ekonomikoan ere bai, eta literaturara erabat emana hogeit urte pasa eta gero, kontziente naiz inkontzienteki hartutako erabakiaz. Badakit sariak erlatibizatu behar direla, batzuk irabazi badi-tut ere, askoz gehiago baitira aurkeztu eta saritu gabe geratu zaizkidanak. Eta gogorra da. Oso. Batzuetan, behar ekonomikoa edukita sari batera aurkeztu eta ezer ez, beste batera saiatu eta esku hutsik. Jendeak hori ez daki, sariaren irudi mediatikoa dauka gogoan, baina errealitatea bestelakoa da. Horregatik egiten dut barre euskal idazleoi oso babestu eta lagunduak izatea leporatzen digutenean. Gehiegi erreparatu zitzaion polemika hari,



Herriko plaza z/g • 20150 ADUNA (Gipuzkoa)
Tel. 943 69 34 81



Uztartza
ATERPETXEA eta JATETXEA





Eguneroko menua
Asteburuetan betiko sukaldaritza



OFF THE RECORD

The Man in the Moon

Idazle jendea lunatiko samarra dela dio estereotipoak. Ez dira gutxi beti ilargian daudela diotenak. Ez dut sekula halakorik sinetsi, baina zititzen hasi, eta *The Man in the Moon* tabernan zitu gintuen Patxik. Iskina batean topatu genuen bere koaderno, idazluma eta liburuekin. Bertan egiten omen du lan. Patuak egiak esaten jarraitzen ote du?

Beharra

“Txikitan, baita nerabezaroan ere, nire egunerokoak idazten nituen. Liburuak idazten hasi nintzenean utzi nion egunerokoak betetzeari, ez neukan gehiago idatzi beharrik, liburuetan zihoazen nire kezak”.

baina uste dut gure benetako arazoa Euskal Idazleen Elkartean gertatutakoa izan zela. Oso garai kritikoak bizi ditugu, baina era berean aukeraz beteak, eta ez dakit aukera horiek baliatzen ari garen.

Ahalegin hori, hurbilen ditugun kulturetara hurbiltzen garena baino askoz gehiago hurbiltzean datza?

Bai, dudarik gabe. Idazleen mundua ez ezik euskal kulturgintza oso endogamikoa da oro har. Gasteizko alde zaharrera joatea baino ez dago kultura arabiarrarekin topo egiteko, baina badugu interesik kultura hori ezagutzeko? Amerikako Estatu Batuetako edizioaren %3a baizik ez da itzulpena, baina endogamia gaitz orokorra izateak ez gaitu salbatuko. Ni Zapateroren aholkularia banintz, eta benetako Espainia federal batean sinetsiko banu, medioetan askoz presentzia handiagoa edukiko lukete kultura katalan, gailego eta euskaldunak. Oso Espai-

nia zentralista daukate gogoan, eta horrek nahitaez, zipriztindu egiten gaitu. Inork ez du inor ezagutzen, eta euskaldunok ere ez. Esango nuke katalanek hobeto zaindu gaituztela guk haiek baino. Baina ez dago kanpora atera beharrik. Egungo Gasteizek ez dauka zerikusirik orain 25 urte hartu gintuenarekin. Bere txikian euskara asko entzuten da, bereziki parkeetan, eta seinale ona da hori, baina ahalegin linguistiko eta kulturala ez dugu politikoki bideratzen asmatu. Ordiziara joan eta seinaleetan Vitoria ezabatuta ikusten dudanean, barre egiten dut, orain ere detaileari baizik ez diogula erreparatzen iruditzen zait. Uste dut oso aberasgarria dela, besterik ezean, paisaiatz aldatzea, mahastiak eta garia ikustea, baina gure belaunaldia Zazpiak Batetik 4x4ra pasa da, eta... Egia esan, herri honek periferiarekiko duen jarrera ez zait gehiegi inporta, ez noa hortik, herri hau txikia da, eta ia-ia toki berean ari gara denok. ■